

BALIO PROPOSAMENA

Zaborra egunero sortzen dugun materiala da, baina gaur egun erabiltzen den zabor bilketa prozesuak hutsune ugari ditu, hala nola, kontenedoreen barruan zaborraren artean geratzen den aire kantitatea edo normalean espazio gutxi horren erruz, kanpoan pilatzen den zaborra. Arazo hori ez da atsegina inorentzako horregatik, guk gabezia hori identifikatu eta aztertu ondoren, konponbide eraginkor bat aurkitu dugu: zaborra prentsa baten bidez prentsatzeta eta kontenedoreen edukiera ahal bezain beste aprobetxatzea. Horrek hainbat abantail ditu, adibidez, kontenedoreen huste-maiztasuna askoz txikiagoa izango da; izan ere, bertan zabor gehiago bildu eta denbora gehiago igaroko da horiek beteta egon aurretik. Ildo beretik, zaborren kudeaketaren arduradunak erregaia aurreztuko du, gutxiagotan atera beharko baitira kamioiak, gainera, irabazten duen espazioari esker ez da kontenedoreen kanpoan zaborra pilatuko. Horrek, ingurugiroa aintzat hartuta, kutsadura murriztea eta energia iturri ez-berriztagarrien erabilera murriztea eragingo du.

Hauetara bezeroak gure enpresa aukeratzeko arrazoiak. Balio kualitatiboa du, diseinuari dagokionez, berezia da, eta edukiera handiago bat eskaintzen du. Balio kuantitatiboari dagokionez, kamioiak zaborra maiztasun gutxiagorekin bildu beharko dutenez, erregai asko aurreztuko litzateke. Horrek modu berean ingurugiroa errespetatzeaz gain, zabor bilketaz arduratzen den enpresaren kostuak murriztuko lituzke.

Gure enpresak ingurugiroa errespetatzeko beharrezkoak diren bitartekoak jartzen ditu arduradun politiko eta sozialen eskura. Etorkizuneko belaunaldientzako gizarte jasangarri, ekologista, inklusiboa eta osasuntsua nahi badugu, zabor bilketa eraginkor eta jasangarri baten aldeko apustua egin beharra dago.

Beraz, laburbilduz, Zabor presek horixe bera eskaintzen dute; jasangarritasuna eta eraginkortasuna zabor bilketara aplikatuta. Lehiakideengandik bereizten gaitu berritasunak, kutsaduraren murrizketa, zabor gehiago modu eraginkorragoan biltzen dela, espazioaren ustiaketa, eta erredukzio-tasa 3-5 kontenedoretatik 1era.